

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

ERABILTZAILEAREN GIDA - EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA ELIKAGAIGINTZA PRODUKTUEN KONTROL ETA EGIAZTAPENERAKO ERAKUNDEEN ERREGISTROA (KEEE)

Lege-oinarria

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko [17/2008 Legea](#) garatzeko, sortu zen Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiatzapenerako Erakundeen Erregistroa (KEEE), Euskal Autonomia Erkidegoan jarduten duten kontrol- eta egiatzapenerako erakundeei (KEE) buruzko informazioa modu iraunkorrean, integratuan eta eguneratuan edukitzeko.

Lege hori garatzeko argitaratu zen maiatzaren 10eko [93/2011 Dekretua](#), Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiatzapenerako Erakundeen Erregistroa sortu eta arautzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoan kalitate bereiziko nekazaritzako elikagaiak edo legez araututako aukerako etiketatzea duten produktuak kontrolatzeko edo ziurtatzeko jarduerak hasiko dituzten kontrol- eta egiatzapen-erakundeei aldez aurretik jakinarazpen bat aurkeztu beharko diote Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariari, jarduerak hasi aurretik. Erakunde horiek Egiatzatze Erakunde Nazionalak (ENAC) akreditatu beharko ditu, aplikatzekoa den berariazko araudiak hori ezartzen duenean, eta aldez aurreko jakinarazpena egitean baldintza hori betetzen ez badute, 2 urteko epea izango dute horretarako.

Dekretu horretan honako hauek daude deskribatuta:

- Aurretiazko komunikaziorako izapidea, bai ENAC-ek egiatzatutako erakundeentzat, bai akreditaziorik ez dutenentzat.
- Inskripzio-ziurtagiria eskatzeko modua.
- Aurkeztutako dokumentazioa aldatzeko prozedura.
- Kontrol- eta egiatzapen -erakundeei urte bakoitzeko urtarilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko duten nahitaezko urteko informazioa.

Erregistro hori (KEEE) pertsona juridikoek osatzen dute. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua arabera, pertsona horiek behartuta daude administrazio publikoekin harremanak izatera bitarteko elektronikoen bidez, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Horregatik, hainbat izapide telematikoko jarri dira abian, lege-eskakizun horiei erantzuteko.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

Informazio orokorra

Prozedura horiek Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak kudeatzen ditu (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila/Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza), eta zuzendaritza horrek du espediente horiek ebazteko eskumena.

Prozedurak jasota daude Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoa: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/erregistroa/kontrol-eta-egiaztapenerako-erakundeen-erregistroa/>.

Aldez aurretik garrantzitsua da :

- Kontuan izatea identifikazio elektronikorako bitarteko bat eduki behar duzula. Sinadura elektronikoaren eta ziurtagirien politika onartzen duen Justizia eta Herri Administrazioako sailburuaren [2012ko ekainaren 27ko Aginduak](#) arautzen ditu bitarteko horiek. Identifikazio elektronikoari buruzko informazio gehiago lor dezakezu [web orri honetan](#).
- Beharrezko dokumentuak formatu digitalean prestatzea (PDF edo onartutako formatuak).

Gero, sartu zerbitzu elektronikoa eta jarraitu honako urrats hauek:

- Bete eskabidearen inprimakia, kontuan hartuta ez dela beharrezkoa formularioa saio bakar batean betetzea, sinatzea eta bidaltzea; nahi izanez gero, Administrazioaren sistema informatikoa gorde dezakezu eta hurrengo saioetan jarraitu.
- Erantsi aurretik prestatu dituzun dokumentuak.
- Sinatu eskabidea.
- Bidali eskabidea eta dokumentuak telematikoki.
- Ondoren, pantaila bat ikusiko duzu, bidalketa eginda dagoela adierazten duena (hartu-agiria).

Ondoren, izapideekin jarraitu ahal izango duzu eta zure espedientearen jarraipena egin ahal izango duzu [Nire karpeta](#)ren bidez. Identifikatu eta karpetara sartu ondoren, dagokion espedientea bilatu beharko duzu.

Hona hemen egin daitezkeen izapideak:

- A. Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundeen Erregistroan alta ematea (0116301 prozedura).
- B. Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundeen Erregistroan datuak aldatzea (0116302 prozedura).

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

- C. Kontrol eta Egiatzapenerako Erakundeen Erregistroan baja ematea (0116303 prozedura).
- D. Kontrol eta Egiatzapenerako Erakundeen Erregistroan datuak urtero jakinaraztea (0116304 prozedura).
- E. Kontrol eta Egiatzapenerako Erakundeen Erregistroko inskripzio-ziurtagiria eskuratzea (0116305 prozedura).


**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

A - Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroan alta ematea (0116301 prozedura)

Prozedura hori erabiltzean, erakundeak jarduera-hasieraren aurretiazko jakinarazpena egiten du, irismen jakin batean eta produktu-mota baterako, eta informazio hori erregistratuta geratuko da KEEEn. Hona hemen jarraitu beharreko urratsak:

1. Hasieran, baimendutako bitarteko batekin identifikatu beharko duzu, eta lehenengo pantailan erabaki beharko duzu:
 - Pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten duzun: identifikazioa eskabidea egiten duen pertsona juridikoaren ziurtagiri elektroniko batekin egiten da, eta datuak pantailan agertuko dira automatikoki.
 - Edo ordezkari gisa jarduten duzun: identifikazioa eskaera egiten duen erakundea ordezkatzeko duen pertsona fisiko gisa egiten da. Kasu horretan, eskabidea egiten ari den pertsonaren datu pertsonalak agertuko dira pantailan, eta berak erakundearen IFKren datuak eta izena eman beharko ditu. Ordezkaritza horrek dokumentu bidez egiaztatuta egon behar du. Ordezkaritza hori ohi erabili behar baduzu, gomendatzen dizugu [Ahalordearen Erregistro Elektronikoan](#) dagokion alta egitea; izan ere, hurrengo espedienteetan, izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko ditu datuak.
2. Hurrengo pantailan, egin nahi duzun izapidea hautatu beharko duzu:
 - Alta berria ENACen akreditazioarekin.
 - i. Entitatearen datuak (KEE) bete beharko dituzu.
 - ii. Produktuaren edo dagokion kalitate-araubidearen ardura duen ekoizle-elkartea identifikatu beharko dituzu, baita elikagaia zein den ere.
 - iii. Jakinarazi beharko da KEEa gaur egun akreditatuta dagoen, eta akreditazioak duen irismena eta zehatz-mehatz zer produktutarako den , edo akreditazio-fasean dagoen, akreditazioaren irismena eta produktua adierazita, orobat .
 - iv. Ez ahaztu erantzukizunpeko adierazpenaren koadroa markatzea.
 - Alta berria, ENACen akreditaziorik gabe.
 - i. KEEaren datuak bete beharko dituzu.
 - ii. Produktuaren edo dagokion kalitate-araubidearen ardura duen ekoizle-elkartea identifikatu beharko dituzu, bai eta elikagaia zein den ere .
 - iii. Erantzukizunpeko adierazpena markatzean, erakundeak onartzen du Elikagaien Kalitate eta Industriako


**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

- Zuzendaritzak erabaki dezakeela jarduera hastea behin-behinean, 24 hilabetez , erakundea k dagozkion irismenerako edo produkturako akreditazioa lortzen duen bitartean . Akreditazio-ziurtagiria erregistro-datatik 24 hilabeteko epea amaitu baino lehen aurkeztu ezean , zuzendaritza horrek erabaki ahal izango du entitateak ezin duela jardueran jarraitu .
- o Beste autonomia-erkidego batean edo EBko estatu kide batean baimenduta dagoen erakunde baten alta KEEEn .
 - i. KEEaren datuak bete beharko dituzu.
 - ii. Produktuaren edo dagokion kalitate-araubidearen ardura duen ekoizle-elkartea identifikatu beharko dituzu, bai eta elikagaia zein den ere .
 - iii. Jakinarazi beharko da KEEa gaur egun akreditatuta dagoen, eta akreditazioak zer irismen duen eta zehatz-mehatz zer produkturako den , edo akreditazio-fasean dagoen, akreditazioaren irismena eta produktua adierazita, orobat .
 - iv. Ez ahaztu erantzukizunpeko adierazpenaren koadroa markatzea. Erakundea irismen horretarako egiaztatuta ez badago, erantzukizunpeko adierazpenean adierazi beharko da onartzen dela Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak erabaki dezakeela jarduera hastea behin-behinean , 24 hilabetez, erakundea k dagozkion irismenerako edo produkturako akreditazioa lortzen duen bitartean. Akreditazio-ziurtagiria erregistroaren datatik 24 hilabeteko epea amaitu baino lehen aurkeztu ez bada, zuzendaritza horrek erabaki ahal izango du entitateak ezin duela jardueran jarraitu.
 - 3. Ondoren, dokumentuak erantsi ahal izango dituzu. Horretarako, aukera guztiak jasotzen saiatzen den kasuistikaren arabera berariazko zerrenda bat dago. Beste dokumentu mota batzuk gehitzeko aukera ere badago. Ordezkarik gisa jardunez gero, eta ordezkaritza-ahalorde hori EAEko Ahalordeen Erregistroan inskribatuta ez badaukazu, ez ahaztu ordezkaritza egiaztatzea erantsi behar duzula.
 - 4. Azken pantailan, zuk sartutako informazioarekin betetako inprimakia agertuko da, aurkeztutako dokumentuen zerrenda batekin batera. Akatsen bat antzeman ez gero, atzera itzul zaitezke, konpontzeko. Azken pantaila horretan inprimakia sinatu eta bidali beharko duzu.


**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

5. Sinatu eta bidali ondoren, pantaila bat ikusiko duzu, bidalketa eginda dagoela adierazten duena (hartu-agiria), eta inprimakia PDF dokumentu gisa deskarga daiteke.

B - Kontrol eta Egiatzipenerako Erakundearen Erregistroan datuak aldatzea (0116302 prozedura)

Prozedura hori baliagarria da KEEEn inskribatutako datuak aldatzeko, bai KEEaren oinarritzako datuei dagokienez, bai irismenari, kontrolatu eta/edo ziurtatu beharreko nekazaritzako elikagaiei edo irismen bakoitzeko berariazko dokumentazioari dagokienez. Aurkeztutako dokumentazioan edozein aldaketa eginez gero, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, aldaketa gertatu eta gehienez ere 30 eguneko epean. Honako hauek dira pantailak:

1. Hasieran, baimendutako bitarteko batekin identifikatu beharko duzu, eta lehenengo pantailan erabaki beharko duzu:
 - Pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten duzun: identifikazioa eskabidea egiten duen pertsona juridikoaren ziurtagiri elektroniko batekin egiten da, eta datuak pantailan agertuko dira automatikoki.
 - Edo ordezkari gisa jarduten duzun: identifikazioa eskaera egiten duen erakundea ordezkatzeko duen pertsona fisiko gisa egiten da. Kasu horretan, eskabidea egiten ari den pertsonaren datu pertsonalak agertuko dira pantailan, eta berak erakundearen IFKren datuak eta izena eman beharko ditu. Ordezkaritza hori ohi erabili behar baduzu, gomendatzen dizugu [Ahalordearen Erregistro Elektronikoan](#) dagokion alta egitea; izan ere, hurrengo espedienteetan, izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko ditu datuak.
2. Hurrengo pantailan, egin nahi duzun izapidea hautatu beharko duzu:
 - Irismen- alta berria ENACen akreditazioarekin. Erregistratuta dauden eta EAEn beren lana irismen berri batean egin nahi duten erakundeentzat, irismen horretarako akreditazioa baldin badute.
 - Irismen-alta berria ENACen akreditaziorik gabe. Erregistratuta dauden eta EAEn beren lana irismen berri batean egin nahi duten erakundeentzat, irismen horretarako akreditaziorik eduki ezean.
 - Baja irismen jakin baterako. Irismen bat baino gehiago duten eta horietako bati baja eman nahi dioten erregistratutako erakundeentzat.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

- Kontrol- eta egiaztapenerako erakundearen oinarrizko datuak aldatzea. IFKren , sozietatearen izenaren , posta-kodearen, helbidearen daturen baten, telefonoaren, posta elektronikoaren, erakundearen ordezkariaren identitatearen edo jakinarazitako irismenetako baterako ENACen akreditazioaren aldatetarako jakinarazteko balio du .
- Irismen jakin bateko dokumentazioa aldatzea. Hemen beste dokumentu batzuk edo aldezturik erregistratutako dokumentuen bertsio eguneratuak erregistra daitezke.

Izapide horiek egiteko , EAEko Kontrol eta Ziurtaginaren Erakundearen Erregistroko inskripzio-zenbakia jakin behar da. Zehazki izanez gero, [dokumentu honetan](#) kontsulta dezakezu.

3. Ondoren, dokumentuak erantsi ahal izango dituzu. Horretarako, aukera guztiak jasotzen saiatzen den kasuistikaren arabera berariazko zerrenda bat dago. Beste dokumentu mota batzuk gehitzeko aukera ere badago. Ordezkarik gisa jardunez gero, eta ordezkari-ahalorde hori [EAEko Ahalordeen Erregistroan](#) inskribatuta ez badaukazu, ez ahaztu ordezkariaren egiaztapena erantsi behar duzula.
4. Azken pantailan, zuk sartutako informazioarekin betetako inprimakia agertuko da, aurkeztutako dokumentuen zerrenda batekin batera. Akatsen bat antzemanez gero, atzera itzul zaitezke, konpontzeko. Azken pantaila horretan inprimakia sinatu eta bidali behar duzu.
5. Sinatu eta bidali ondoren, pantaila bat ikusiko duzu, bidalketa eginda dagoela adierazten duena (hartu-agiria), eta inprimakia PDF dokumentu gisa deskarga daiteke.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

C - Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroan baja ematea (0116303 prozedura)

Prozedura horren bidez, erakundeak KEE gisa EAEn jarduteari utzi diola jakinarazten du, eta baja eskatzen du KEEEn . Izapide hori egiteko , EAEko Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroko inskripzio-zenbakia jakin behar da. Zalantzarik izanez gero, [dokumentu honetan](#) kontsulta dezakezu. Hauek lirateke prozeduraren faseak:

1. Hasieran, baimendutako bitarteko batekin identifikatu beharko duzu, eta lehenengo pantailan erabaki beharko duzu:
 - Pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten duzun: identifikazioa eskabidea egiten duen pertsona juridikoaren ziurtagiri elektroniko batekin egiten da, eta datuak pantailan agertuko dira automatikoki.
 - Edo ordezkari gisa jarduten duzun: identifikazioa eskaera egiten duen erakundea ordezkatzeko duen pertsona fisiko gisa egiten da. Kasu horretan, eskabidea egiten ari den pertsonaren datu pertsonalak agertuko dira pantailan, eta berak erakundearen IFKren datuak eta izena eman beharko ditu. Ordezkaritza horrek dokumentu bidez egiaztatuta egon behar du. Ordezkaritza hori ohi erabili behar baduzu, gomendatzen dizugu [EAEko Ahalordeen Erregistro Elektronikoan](#) dagokion alta egitea ; izan ere, hurrengo espedienteetan, izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko ditu datuak.
2. Hurrengo pantailan, KEEEn inskripzio-zenbakia jarri beharko duzu, eta oharren atalean, eskaeraren arrazoia zehaztu ahal izango duzu. Erantzukizunpeko adierazpena ere markatu beharko duzu.
3. Ondoren, informazio-dokumentu bat, kontrol- eta egiaztapen -jarduera guztiak EAEn egiteari uztekoa, erantsi ahal izango duzu. Beste dokumentu mota batzuk gehitzeko aukera ere badago. Ordezkarik gisa jardunez gero, eta ordezkari-ahalorde hori EAEko Ahalordeen Erregistroan inskribatuta ez badaukazu, ez ahaztu ordezkariaren egiaztapena erantsi behar duzula.
4. Azken pantailan, zuk sartutako informazioarekin betetako inprimakia agertuko da, aurkeztutako dokumentuen zerrenda batekin batera. Akatsen bat antzeman ez gero, atzera itzul zaitezke, konpontzeko. Azken pantaila horretan inprimakia sinatu eta bidali beharko duzu.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

5. Sinatu eta bidali ondoren, pantaila bat ikusiko duzu, bidalketa eginda dagoela adierazten duena (hartu-agiria), eta inprimakia PDF dokumentu gisa deskarga daiteke.


**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

D – Urteko datuen jakinarazpena Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundeen Erregistroan (0116304 prozedura)

Prozedura horri esker, erregistratutako KEEak honako hauei buruzko informazioa eman dezakete urte bakoitzeko urtarrilaren 31 baino lehen:

- Operadoreen zerrenda eguneratua, dagozkien helbideekin.
- Egindako ikuskapen eta kontrolei eta lortutako emaitzei buruzko txostena, betetze-maila, gorabeherak eta hartutako neurriak adierazita.
- Hala badagokio, ENACen akreditazioa berritzeko dokumentuaren kopia.
- Urteko kontrol-plana, kasuan kasuko urterako.

Izapide hori egiteko, EAEko Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundeen Erregistroko inskripzio-zenbakia jakin behar da. Zalantzarik izanez gero, [dokumentu honetan](#) kontsulta dezakezu.

Hona hemen urratsak:

1. Hasieran, baimendutako bitarteko batekin identifikatu beharko duzu, eta lehenengo pantailan erabaki beharko duzu:
 - Pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten duzun: identifikazioa eskabidea egiten duen pertsona juridikoaren ziurtagiri elektroniko batekin egiten da, eta datuak pantailan agertuko dira automatikoki.
 - Edo ordezkari gisa jarduten duzun: identifikazioa eskaera egiten duen erakundea ordezkatzeko duen pertsona fisiko gisa egiten da. Kasu horretan, eskabidea egiten ari den pertsonaren datu pertsonalak agertuko dira pantailan, eta berak erakundearen IFKren datuak eta izena eman beharko ditu. Ordezkaritza horrek dokumentu bidez egiaztatuta egon behar du. Ordezkaritza hori ohi erabili behar baduzu, gomendatzen dizugu [EAEko Ahalordeen Erregistro Elektronikoan](#) dagokion alta egitea; izan ere, hurrengo espedienteetan, izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko ditu datuak.
2. Hurrengo pantailan adierazi beharko dira KEEko inskripzio-zenbakia eta egindako kontrolei buruzko informazioari dagokion urtea (normalean, aurreko urtean). Erantzukizunpeko adierazpena ere markatu beharko duzu.
3. Ondoren, dokumentuak erantsi ahal izango dituzu. Horretarako, aukera guztiak jasotzen saiatzen den kasuistikaren arabera berariazko zerrenda

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

bat dago. Beste dokumentu mota batzuk gehitzeko aukera ere badago. Ordezkarari gisa jardunez gero, eta ordezkaritza-ahalorde hori EAEko Ahalordeen Erregistroan inskribatuta ez badaukazu, ez ahaztu ordezkaritzaren egiaztagiria erantsi behar duzula.

4. Azken pantailan, zuk sartutako informazioarekin betetako inprimakia agertuko da, aurkeztutako dokumentuen zerrenda batekin batera. Akatsen bat antzemanenez gero, atzera itzul zaitezke, konpontzeko. Azken pantaila horretan inprimakia sinatu eta bidali beharko duzu.
5. Sinatu eta bidali ondoren, pantaila bat ikusiko duzu, bidalketa eginda dagoela adierazten duena (hartu-agiria), eta inprimakia PDF dokumentu gisa deskarga daiteke.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

E - Kontrol eta Egiatapenerako Erakundearen Erregistroko inskripzio-ziurtagiria eskuratzea (0116305 prozedura)

Izapide horren bidez, KEEEn izena eman izanaren ziurtagiria lor daiteke.

1. Hasieran, baimendutako bitarteko batekin identifikatu beharko duzu, eta lehenengo pantailan erabaki beharko duzu:
 - Pertsona edo erakunde interesdun gisa jarduten duzun: identifikazioa eskabidea egiten duen pertsona juridikoaren ziurtagiri elektroniko batekin egiten da, eta datuak pantailan agertuko dira automatikoki.
 - Edo ordezkari gisa jarduten duzun: identifikazioa eskaera egiten duen erakundea ordezkatzeko duen pertsona fisiko gisa egiten da. Kasu horretan, eskabidea egiten ari den pertsonaren datu pertsonalak agertuko dira pantailan, eta berak erakundearen IFKren datuak eta izena eman beharko ditu. Ordezkaritza horrek dokumentu bidez egiaztatuta egon behar du. Ordezkaritza hori ohi erabili behar baduzu, gomendatzen dizugu [EAEko Ahalordeen Erregistro Elektronikoan](#) dagokion alta egitea; izan ere, hurrengo espedienteetan, izapide telematikoak modu automatizatuan lortuko ditu datuak.
2. Hurrengo pantailan zure eskaeraren arrazoi zehatza deskribatuko da.
3. Ondoren, beharrezkotzat jotzen duzun beste edozein dokumentu erantsi ahal izango duzu. Ordezkari gisa jardunez gero, eta ordezkaritza-ahalorde hori EAEko Ahalordeen Erregistroan inskribatuta ez badaukazu, ez ahaztu ordezkaritzaaren egiaztatzea erantsi behar duzula.
4. Azken pantailan, zuk sartutako informazioarekin betetako inprimakia agertuko da, aurkeztutako dokumentuen zerrenda batekin batera. Akatsen bat antzemanaz gero, atzera itzul zaitezke, konpontzeko. Azken pantaila horretan inprimakia sinatu eta bidali beharko duzu.
5. Sinatu eta bidali ondoren, pantaila bat ikusiko duzu, bidalketa eginda dagoela adierazten duena (hartu-agiria), eta inprimakia PDF dokumentu gisa deskarga daiteke.

**ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA
SAILA**

Elikadurako eta Landa
Garapeneko Sailburuordetza
Elikagaien Kalitate eta
Sustapeneko Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE
ALIMENTACIÓN, DESARROLLO
RURAL, AGRICULTURA Y PESCA**

Viceconsejería de Alimentación y
Desarrollo Rural
Dirección de Calidad y Promoción
Alimentaria

Zalantzak eta arazo teknikoak

Erregistro horrekin zerikusia duten gai teknikoetarako, erregistroa kudeatzen duen Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzako teknikariekin jar zaitezke harremanetan, posta elektronikoaren bidez (mi-troya@euskadi.eus) edo telefonoz(945-019706).Helbide honetara ere idatz dezakezu calimentaria@euskadi.eus.

Izapidetze elektronikoan arazoak izanez gero, erabiltzaileentzako arretazentroarekin harremanetan jar zaitezke 945 01 68 38 telefonoaren bidez.